Haurreskoletan haurrak onartzeko arautegia eta prozedura

ONARPEN-PROZEDURAREN ARAUTEGIA

07/03-2019 Erabakia, 2019ko martxoaren 26koa, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena. Honen bidez, Haurreskolak Partzuergoko haurren onartze-arauak eta irizpideak onartzen dira 2019ko irailaren 1 etik aurrera.

Haurreskolak Partzuergoa erakunde publikoa da eta, araututako gaietan, Eusko Jaurlaritzak emandako araudien mende dago; arautu gabeko gaietan, berriz, Haurreskoletako Zuzendaritza Batzordeak ezartzen ditu irizpideak eta jarraibideak, hala nola izena emateko egutegia.

Horregatik, haurrak onartzeko prozeduraren egutegia eta arauak ezarri behar dira Haurreskolak Partzuergoaren mende dauden haurreskoletarako.

Haurreskolak Partzuergoko Gasteizko Haurreskoletan, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko lankidetza-hitzarmenean zehazturiko onartze irizpide eta arauak aplikatuko dira, lehiatila bakarraren bitartez.

1. Artikulua: Izena emateko epeak:

Dagokion adin tartean plaza hutsak badaude eta haurra berehala hasteko bada:

- Haurreskolan eskainitako plaza guztien %75 edo gutxiago hartuta badago, izena emateko epea etengabe egongo da irekita.
- Haurreskolan eskainitako plazen %75 baino gehiago hartuta badago berriz, izena emateko ezarritako epeak bete egingo dira. Kasu guztietan beteko da izena emateko maiatzeko epea, haurra irailean, urrian eta azaroan hastekoa bada.

Eskaerak ezarritako epean egin behar dira. Eskaerak egiteko, inprimaki-eredu ofiziala bakarrik aurkez daiteke eta haurreskolan bertan doan jaso ahal izango da.

Eskariak aurkezteko epean, eskatzaile bakoitzak haurreskola bakarrean egin behar du eskaera. Eskariak aurkezteko epe berean Haurreskola batean baino gehiagotan eskaera eginez gero, eskatzaileak aukera-eskubideak galduko ditu.

Lehen aukera gisa eskatutako haurreskolan aurkeztuko da eskaria.

Ezarritako epea iritsi baino lehen ez da eskaririk onartuko.

Eskari-inprimakiarekin batera, atxikita aurkeztuko dira baremoan aintzat hartutako egoerak egiaztatzen dituzten dokumentuak. Eskariak onartzeko epea itxi eta gero, ezin izango da dokumentu gehiago aurkeztu.

Atal edo azpiatalen batean puntuak lortzeko behar den dokumentuetako bat aurkezten ez bada, batere punturik gabe geldituko da atal edo azpiatal hori; dena den, horrek ez du eskaria baliogabetzen, ezta beste atal edo azpiataletan lortutako puntuak ere.

Izena emateko, hiru epe ezarri dira:

1. Maiatzean, haurreskolan irailean, urrian eta azaroan hasiko diren haurrentzat.
2. Urrian, haurreskolan abenduan, urtarrilean eta otsailean hasiko diren haurrentzat.
3. Urtarrilean, haurreskolan martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean hasiko diren haurrentzat.

2. Artikulua: onartze irizpide orokorrak.

2.1 Haurreskola batean dagokion adin tartean plaza hutsik ez badago, izenemate epea ez da irekiko adin tarte horretarako.

2.2 Aurreko ikasturtean matrikulatuta dauden haurrek ez dute berriz ere eskaria egin behar, beren plaza automatikoki bermatzen baitzaie izena emateko maiatzeko epearen aurretik hala eskatu duten familiei.

2.3 Matrikulatuta dauden baina haurreskolaz aldatu nahi duten haurrek, berriz, prozesu honetako eskaria egin beharko dute prozedura berbera jarraituz. Beste haurreskola batzuetatik datozen haurrak onartutako behin betiko zerrendetan sartzen badira, galdu egingo dute jatorrizko haurreskolan zuten plaza.

2.4 Oraindik jaio ez direnak ezin izango dira inskribatu.

2.5 Izena ematean eta haurrak noiz hasiko diren finkatzean, derrigorrezkoa izango da haurreskolan hastean haurrek 16 aste beteta izatea.

2.6 Urtarrileko izen-ematearen eperako jaio ez diren haurrak eta eskaerak egiteko epea pasa ondoren jaiotzen direnak, onartu ahal izango dira haurreskoletan, baldin eta adin horretako haurrentzat plazarik badago. Era berean, urtarrileko izen emateko behin betiko zerrendak argitaratu ondoren jasotzen diren izen emateak aztertuko dira, martxotik ekainera bitartean hastekoak badira eta adin tarte horretarako plazarik badago.

2.7 Izen-ematearen kanpo jaiotako haur jaio berriek plaza lortzeko aukera izango dute, dagokion atalean zehaztutako protokoloa eta epeak jarraituz.

2.8 Bajan emandako haurrek Haurreskolak Partzuergoan berriro izena eman nahi badute 4 hilabete edo gutxiagoko epean, izen-ematea onartuko zaie, baldin eta banku-transferentziaren bidez hilabete horien ordainketa egiten badute 18.000 €tik beherako errentak dauzkaten familien kasuak eta Haurreskolak Partzuergoak aztertuko dituen salbuespenak izan ezik: langabezi egoerak edo haurraren osasun egoera larriak edo

ospitalizazioa eragiten duten bajak, beti ere egoera hori, haurra haurreskolan hasi ondoren suertatzen bada. Egoera hauek ziurtatzea beharrezkoa izango da.
Bajak ondorio ekonomiko eta antolakuntzakoak izango ditu baja egunaren hurrengo hilabetetik aurrera.
0 kuota tartea daukaten familien kasuan, baja ofizioz eginez gero, berriz ezingo dute Haurreskolak Partzuergoan sartu hurrengo 9 hilabetetan. Ofiziozko baja kontsideratuko da, baldin eta haurra ez balitz 20 egunetan haurreskolan agertuko arrazoi justifikaturik gabe eta horren ondorioz, baja ematen bazaio.

2.9 Haurreskola batean baja eskatzen baldin bada eta ondoren berriz ere matrikula berri bat egiten baldin bada, haurren izen ematerako ohiko prozedura jarraitu beharko da, berriro izen emate orria eta eskatzen den dokumentazioa entregatuaz. Bitarte horretan, 4 hilabete pasa ez badira, ez da kuota tartea eguneratuko.

2.10 Azaroaren 16ko 215/2004 dekretuaren amaierako xedapena garatzen duen 2008ko apirilaren 10eko aginduan jasotzen denaren arabera, Haurreskolak Partzuergoak landagune edo hirigune moduan kalifikatutako guneetan adin desberdinetako haurrak taldekatzeko eskumena izango du. Taldekatze hauek gehienez ere 10 haurretakoak izango dira eta gehinez ere 0 urteko 6 haur izango dituzte antolaketa arrazoiengaitik.

2.11 3 haur baino gutxiagorekin ez da Haurreskola zabalduko.

2.12 Ez da atzerapenik onartuko izen-emateko eskaeran adierazitako hasiera datan.

2.13 Bajak haurreskolari jakinarazi beharko zaizkio familiak haurreskolan eskatutako eta sinatutako baja-ereduaren bitartez. Datu guztiak ondo betetzea eskatzen da. Baja onartzeko bajaren efektu-data baino **5 egun lehenago** eskatu beharko da. Ondoren jasotako bajak ez dira onartuak izango.
Haurra ez balitz 20 egunetan haurreskolan agertuko arrazoi justifikaturik gabe, ofiziozko baja emango litzaioke.

2.14 Uztaileko bajen agiriak ekainaren 1a baino lehen entregatu beharko dira haurreskolan onartuak izateko**.** Ekainaren 1etik aurrera entregatutako uztaileko bajak ez dira onartuak izango antolamendu eta kudeaketa arrazoiengatik

2.15 Berehala hasi nahi duten haurrak: onartuta dauden hiru izen emate ofizialetatik kanpo, berehala haurrekolaren batean hasi nahi duen haurrak, hasiera data baino, 10 egun lehenago aurkeztu beharko du matrikula eta beharrezko dokumentazio guztia dagokion haurreskolan. Epe hau ez bada betetzen, hasiera da atzeratu egingo da 10 egun horiek bete arte.

2.16 Haurdun ez dagoen gurasoak eszedentziarako laguntza ekonomikoa jasotzen badu haurra ez da onartua izango eszedentzia mota honek dirauen bitartean, baldin eta 0 kuota tartean baldin badago.

3. Artikulua: Eskaria barematzeko irizpideak:

Baldin eta eskari guztietarako behar adina plaza ez badago, honako irizpide hauek, denak batera, hartuko dira aintzat haurrak onartzeko:

3.1. Familia-unitatearen urteko errenta. (Azpiataletako puntuak batu daitezke atalaren gehienezko puntuazioa lortu arte)

- 2017ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 49.532 € edo gutxiagokoa bada: 0,5 puntu.
- 2017ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 29.719,2 € edo gutxiagokoa bada: puntu 1.
- 2017ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 9.906,40 € edo gutxiagokoa bada: 1,5 puntu.
- Eskatzailea ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik: 0,25 puntu.
- Atal honetako gehienezko puntuazioa: 3 puntu.

Aipatutako puntuazio hori lortzeko, familia-unitateko kide guztien 2017ko Ekitaldi Fiskaleko Zerga Oinarri Orokorrei dagozkien diru-sarrerak hartuko dira kontuan. Familia-unitateko kide guztien urte horretako Errenta Aitorpenaren kopia aurkeztu beharko dute edo, hala badagokie, baterako Aitorpenaren kopia. Zerga-arauek ezarritakoari jarraituz familia-unitateko kideren batek urte horretako Errenta Aitorpena egin ez badu, dagokion Ogasunak emandako ziurtagiri eguneratua[1] (aitorpena egin ez izanarena) diru sarrerak zehaztuz aurkeztu beharko da.

Familia-unitatea osatzen duten kide guztiek errenta aitorpena egin ez badute edo espainiar estatutik kanpo egonez gero, dagokion ogasunak edo jatorrizko herrialdeko administrazioak emandako ziurtagiria, 2017 urtean jaso dituen edo dituzten errenta guztiak eta PFEZari egotzi dakizkioken errendimenduak adierazten dituena aurkeztu beharko dute.

<u>Familia-unitatea</u>

32/2015 Dekretuaren (martxoaren 17koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen dekretua aldatzekoa) 4. artikuluaren arabera, honako osagai hauek dituena hartzen da familia-unitatetzat:

a) Eskatzailea.
b) Haren ezkontidea, ezkontza-deuseztasunik, banantzerik edo dibortziorik izan ez bada, edo harekin izatezko bikote gisa bizi ohi dena, betiere eskatzailea emakumeen kontrako indarkeriaren biktima ez bada eta egoera hori 5. puntuan ezarritako moduan egiaztatu badu.
c) Haiek zaintza eta jagoletzapean dituzten eta etxebizitza berean bizi diren seme-alabak.

Aita eta ama etxebizitza berean erroldatuta ez badaude eta haien artean ezkontza-loturarik ez badago, adingabearen ama eta aita izatezko bikote gisa bizi ohi direla uste izango da, non eta ebazpen judizialaren bidez egiaztatzen ez duten elkarrekin bizi ez direla. Ebazpen horretan bertan emango da semearen edo alabaren zaintza- eta jagoletza-erregimenari buruzko erabakia.

Halaber, bikoteko bi kideei buruzko aipamenak sexu bereko pertsonek osatutako bikoteei zein sexu desberdinekoek osatutakoei buruzkoak direla ulertuko da.

Anaia-arreben kopurua familia-liburuaren kopia baten bidez egiaztatuko da, eta adin txikiko anaia-arrebak bakarrik hartuko dira kontuan.

3.2. Bizilekuaren gertutasuna (Kontzeptu hauek ez dira metagarriak).

- Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea haurraren bizilekua: 5 puntu.
- Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea aitaren, amaren edo lege ordezkariaren lantokia: 2 puntu (Puntu horiek bateraezinak dira haurraren aita, ama edo lege-tutorea eskatutako haurreskolan lan egiteagatik ematen diren puntuekin).
- Atal honetako gehienezko puntuazioa: 5 puntu.

Haurra eta aita, ama edota legezko tutorea bizi diren etxea joko da familiaren bizilekutzat. Kasu horretan, haurraren eta guraso edota tutoreen errolda-agiri eguneratua[1] eta Nortasun Agirien (atzerritarren kasuan, Atzerritarren Identifikazio Zenbakia) kopiak aurkeztuko dira familiaren bizilekua egiaztatzeko.

Haurraren guraso izatea egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Haurraren tutore izatea egiaztatzeko, epaiaren kopia edota dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

Aitaren, amaren edota legezko tutorearen lantokia eta eskatutako haurreskola udalerri berean badaude eskarian aurkeztean, egoera hori kontuan hartzeko aukeratu daiteke bizilekua balioetsi beharrean.

Kasu horretan, lantokia egiaztatzeko, besteren kontura ari diren langileak badira, enpresaren titularrak edo langileen arduradunak sinatutako ziurtagiri eguneratua[1] eta ibilbidea irekita duen gizarte segurantzako lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua[1] aurkeztu behar da. Agiri horrek adierazi behar du haurraren amak, haren aitak edo haren tutoreak enpresa horretan lan egiten duela. Jarduera norberaren kontura bada, jarduera ekonomikoen gaineko zergan altaren ziurtagiria edo udalak emandako irekitze-baimenaren kopia konpultsatua eta lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua[1].

Lantokia eta haurreskola udalerri berean egoteagatik ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian haurraren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitatzat edo amatzat hartuko da. Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkonduta daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

3.3. Anaia-arrebak haurreskolan dagoeneko matrikulatuta egotea edo aitak, amak edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea.

- Eskatutako haurreskolan bertan anaia-arreba bat edo gehiagorekin batera egotea: 9 puntu.
- Aitak, amak edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea 7 puntu.

- Atal honetako gehienezko puntuazioa: 9 puntu.

Atal honetan, adopzio aurreko egoeran nahiz harrera-egoeran dauden adingabeak ere haurreskolan matrikulatutako anaia-arrebatzat hartuko dira.

Atal honetako puntuazioa emateko, beharrezkoa izango da eskaria egin duen haurra haurreskolan anaia-arrebekin batera egotea edo izen-emate epean ama, aita edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea.

Haurraren anaia-arreba edo guraso izatea egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da.

Haurraren tutore izatea egiaztatzeko, epaiaren kopia edota dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

Atal honi dagokion puntuazioa ematerakoan, familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin betiko nahiz adopzio aurreko familia-harrera egoeran dauden adingabeak ere anaia-arrebatzat hartuko dira.

Halaber, atal honetan ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian, haurraren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitatzat edo amatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anaia-arrebatzat hartuko dira haurrarekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkonduta daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

3.4. Familia ugariko kidea izatea.

- Maila orokorreko familia ugariko kidea izateagatik: puntu 1.
- Maila bereziko familia ugariko kidea izateagatik: 1,5 puntu.

Familia ugaria dela egiaztatzeko, estatuko edozein autonomia-erkidegok emandako agiri ofiziala aurkeztu behar da.

3.5. Haurraren elbarritasuna edo amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anaia-arrebaren batena.

Elbarritasunagaitik (Atal honetako gehienezko puntuazioa: 2 puntu)
- Haur eskatzailearena: 2 puntu.
- Haren amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anaia-arrebaren batena: puntu 1.

Atal honi dagozkion puntuak emateko, aipatutako pertsona horietako batek %33ko edo gehiagoko elbarritasuna izan behar du. Elbarritasuna bi pertsonak edo gehiagok badute ere, puntuak horietako batengatik bakarrik emango dira; beraz, gehienez, 2 puntu lortuko dira atal honetan, elbarritasuna haurrak berak badu, eta puntu bat, elbarritasuna aipatutako familiarteko batek badu.

Elbarritasuna egiaztatzeko, dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuek edo estatuko antzeko beste organo batek emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Elbarritasunaren aitorpen legala adierazi behar du ziurtagiri horrek eta elbarritasun-maila %33koa edo gehiagokoa dela jakinarazi.

Haurraren anaia-arreba edo guraso izatea egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Haurraren tutore izatea egiaztatzeko, epaiaren kopia edota dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

Atal honi dagokion puntuazioa ematerakoan, familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin betiko nahiz adopzio aurreko familia-harrera egoeran dauden adingabeak ere anaia-arrebatzat hartuko dira.

Atal honetan ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian, haurraren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitatzat edo amatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anaia-arrebatzat hartuko dira haurrarekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkonduta daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

3.6. Beste egoera adierazgarri batzuk.

Aita, ama edo legezko tutoreen lan-egoera*:* gehienez ere 4 puntu.

- Aitak, amak edo legezko tutoreak, biak, lanean aritzea: 4 puntu.
- Guraso bakarreko familia bada, guraso bakarra lanean aritzea: 4 puntu.
- Guraso bat lanean eta bestea langabezian egotea: puntu 1.
- Bi gurasoak edo, guraso bakarreko familia bada, guraso bakar hori langabezian egotea: puntu 1.

Atal honetako puntuazioa eskuratzeko, lan ibilbidea irekita duen gizarte segurantzako lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua[1] aurkeztu beharko da. Langabezian egonez gero, Euskal Enplegu Zerbitzuko (Lanbide) txartel eguneratua[1], non lan eskatzaile bezala agertzen den. Erregimen berezietan dauden langileen kasuan (adibidez mutualidade batean daudenak) bizitza laboralaren ziurtagiririk ez badute erregimen honetan altan daudenaren ziurtagiria eguneratua aurkeztu beharko dute.
Eszedentzia egoerak kontutan hartuko dira baldin eta lan ibilbidea irekia duen alan-bizitzaren ziurtagiriarekin batera enplegatzaileak emandako ziurtagirian lanpostura itzultzeko data

zehazten bada eta data hori gehienez haurra haurreskolan hasi eta hilabete bat beranduagokoa bada.

Guraso bakarreko familia dela ziurtatzeko, guraso bakarra azaltzen denaren familia-liburuaren kopia edo guraso bati zaintza ematen dion erabaki judizial irmo edo hitzarmen arautzailearen kopia edo behin behineko neurriak ezartzen dituen autoa epaileak berretsia.

3.7.Berdinketa gertatuz gero

Aurreko ataletan lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan, atalak banan-banan alderatuta eta honako ordena honi jarraituz:

a) Anaia-arrebak haurreskolan matrikulatuta egotea edo aita, ama edo legezko tutorea haurreskolan lan egitea aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
b) Haurraren bizilekua edo amaren, aitaren edo legezko tutorearen lantokiaren kokalekua aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
c) Haurren elbarritasuna edo amaren, aitaren edo legezko tutorearen elbarritasuna aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
d) Familia ugaria izatea aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
e) Familia-unitatearen urteko Errentarik bajuena (Zerga-oinarria + auurezkiaren oinarrien baturarik bajuena).
f) Abizenen eta izenaren orden alfabetikoa erabiliko da azken irizpide moduan. Letra bat zozketatuko da, eta puntuazio bereko hautagaiak letra horretatik hasiko dira alfabetikoki ordenatzen.

Erditze anitzeko kasuetan

Erditze anitzeko kasuetan baremazio prozesua burutu ondoren haur bat onartua eta bestea/k ez onartuak izanez gero, kanpoan gelditu den familia unitateko haurra onartua izango da beste haurrekin batera.

[1] Eguneratuak kontsideratuko dira baldin eta dokumentuaren data eta aurkezte dataren artean 3 hilabete baino gehiago pasatu ez badira.

4. Artikulua: Haurren behin behineko zerrenden argitalpena.

Haurren zerrenden argitalpena arautzeko, Haurreskolak Partzuergoa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan oinarritzen da.

1.- Izen emate epea amaitu ondoren, arautegi honetan ezartzen diren epeetan, onartuen eta hautagaien zerrendak argitaratuko dira haurreskoletako iragarki taulan. Baremazio beharrezkoa izan den kasuetan, baremoaren atal bakoitzean eskuratutako puntuazioa eta puntuazio orokorra argitaratuko dira ezarritako kuota tartearekin batera.

2.- Zerrenda hauek behin behineko izaera izango dute eta, eta beraien aurka erreklamazioa aurkezteko modua egongo da, haureskolan bertan aurkeztutako idatziaren bidez (01 PO) arautegi honetan ezartzen diren epeak kontutan hartuaz.

5. Artikulua : Haurren Behin Behineko zerrendei erreklamazioak

Izen emate aldi bakoitzean, onartutako haurren behin behineko zerrendak argitaratu ostean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da horretarako arautegi honetan ezarritako epean.

6. Artikulua: Haurren behin betiko zerrenden argitalpena:

Haurren zerrenden argitalpena arautzeko, Haurreskolak Partzuergoa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan oinarritzen da.

1.- Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira haurreskoletako iragarki taulan arautegi honetan ezarritako epeak kontutan hartuaz.

2.- Era berean, haurreskolek ,hautagaien zerrendak argitaratuko dituzte dagokien hurrenkeran ordenaturik, onartuen zerrendan hutsik gelditzen diren plazak bete ahal izateko. Hautagai zerrendak dauden haurreskola eta dagokion adin tartean, bajen ondorioz hutsik gelditutako plazak, zerrenda honetako hautagaiei eskaini beharko zaizkie zerrendan agertzen diren hurrenkeraren arabera.

7. Artikulua: Haurren Behin Betiko zerrendei helegiteak:

Izen emate aldi bakoitzean, onartutako haurren behin betiko zerrendak eta itxaron zerrendak argitaratu ostean, gorako helegitea aurkeztu ahal izango da Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari zuzenduta, HILABETE BATEKO epean, argitaratzearen ondorengo egunetik hasita.

2019ko maiatzeko izen-emate epea

2018 eta 2019 urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek Haurreskolak Partzuergoko zentroetan plaza eska dezakete.

- **Eskariak aurkezteko eta onartze-epeetarako egutegia**

Honako egutegi komun hau ezarriko da eskariak aurkezteko eta haurren onartze-prozeduraren epeetarako:

a) Eskariak entregatzea:	maiatzaren 2tik 10era
b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea:	ekainaren 14a
c) Erreklamazio eta subsanazio epea:	ekainaren 17tik 28ra
d) Eskaerari uko egitea:	ekainaren 28a arte
e) Behin betiko zerrendak argitaratzea:	uztailaren 12a
Haurren hasiera-data haurreskolan:	**irailaren 5a**

Jaioberrien izenemateen kudeaketa (apirilaren 10tik aurrera jaiotakoak):

Apirilaren 10tik aurrera jaiotakoek maiatzaren 10tik aurrera izenematea haurreskolan aurkeztu ahal izango dute bere jaiotze datatik hilabete bat bete arteko epean eta behin behineko edota behin betiko zerrendetara gehituko dira. Jaio berri hauen izen ematea gauzatu ondoren, ezin izango dute dokumentazio berririk aurkeztu.

Ekainaren 28tik aurrera haurreskolan entregatzen diren jaioberrien izenemateak behin betiko zerrendak publikatu ostean (uztailak 12) kudeatuko dira, beti ere dagokion adin tartean plaza librerik balego.

2019ko urriko izen-emate epea

2018 eta 2019 urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek Haurreskolak Partzuergoko zentroetan plaza eska dezakete.

- **Eskariak aurkezteko eta onartze-epeetarako egutegia**

Honako egutegi komun hau ezarriko da eskariak aurkezteko eta haurren onartze-prozeduraren epeetarako:

a) Eskariak entregatzea:	urriaren 1tik 9ra
b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea:	azaroaren 5a
c) Erreklamazio eta subsanazio epea:	azaroaren 6tik 19ra
d) Eskaerari uko egitea:	azaroaren 19a arte
e) Behin betiko zerrendak argitaratzea:	azaroaren 26a
Haurren hasiera-data haurreskolan:	**abenduaren 2a**

Jaioberrien izenemateen kudeaketa(irailaren 9tik aurrera jaiotakoak):

Irailaren 9tik aurrera jaiotakoek urriaren 9tik aurrera izenematea haurreskolan aurkeztu ahal izango dute bere jaiotze datatik hilabete bat bete arteko epean eta behin behineko edota behin betiko zerrendetara gehituko dira. Jaio berri hauen izen ematea gauzatu ondoren, ezin izango dute dokumentazio berririk aurkeztu.

Azaroaren 15tik aurrera haurreskolan entregatzen diren jaioberrien izenemateak behin betiko zerrendak publikatu ostean (arazoaren 26an) kudeatuko dira, beti ere dagokion adin tartean plaza librerik balego.

2020ko urtarrileko izen-emate epea

2018, 2019 eta 2020 urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek Haurreskolak Partzuergoko zentroetan plaza eska dezakete.

- **Eskariak aurkezteko eta onartze-epeetarako egutegia**

Honako egutegi komun hau ezarriko da eskariak aurkezteko eta haurren onartze-prozeduraren epeetarako:

a) Eskariak entregatzea:	urtarrilaren 7tik 13ra
b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea:	otsailaren 3a
c) Erreklamazio eta subsanazio epea:	otsailaren 4tik 17ra
d) Eskaerari uko egitea:	otsailaren 17a arte
e) Behin betiko zerrendak argitaratzea:	otsailaren 24a
Haurren hasiera-data haurreskolan:	**martxoaren 2a**

Jaioberrien izenemateen kudeaketa(abenduaren 11etik aurrera jaiotakoak):

Abenduaren 11etik aurrera jaiotakoek urtarrilaren 13tik aurrera izenematea haurreskolan aurkeztu ahal izango dute bere jaiotze datatik hilabete bat bete arteko epean eta behin behineko edota behin betiko zerrendetara gehituko dira. Jaio berri hauen izen ematea gauzatu ondoren, ezin izango dute dokumentazio berririk aurkeztu.

Otsailak 14tik aurrera haurreskolan entregatzen diren jaioberrien izenemateak behin betiko zerrendak publikatu ostean (otsailaren 24ean) kudeatuko dira, beti ere dagokion adin tartean plaza librerik balego.

Urtarrileko izen emateko behin betiko zerrendak argitaratu ondoren jasotzen diren izen emateak aztertuko dira, martxotik ekainera bitartean hastekoak badira eta adin tarte horretarako plazarik balego.

Eibar, 2019ko martxoaren 26a

Cristina Uriarte Toledo
Haurreskolak Partzuergoko lehendakaria

Maite Larrañaga Orbea
Haurreskolak Partzuergoko idazkaria